

# Donostia-ko Fueroa<sup>(1)</sup>

---

«Nemo enim patriam quia magna est amat, sed quia sua est»

---

## 1

Donostia noiztik datorren eta nola sortu zan, ez dakigu. Batzuek esaten dute gauza bat; beste batzuek beste bat; baña iñork ez du oraindik argiroki erakutsi Donostiaren sorrera nola izan zan. Ori gertatu oi da beti, anziña-anziñatik datozen gauza guztiakin, urrutitik, oso urrutitik datozen asiera denak illunak diralako. Lurrera bota dan alea, ez dakigu nola dijoan azitzen eta lertzen: ez degu ikusten lurraren azalera, landareturik, ateratzen dan arte. Orduan, gure begien aurrean agertzen zaigunean, sinisgaitzenak, ere, nai eta nai ez bezela aitortu bear du, ale t̄siki artatik sortu dala.

Gogoan iduki bear da au guztia, uri bildu baten asiera jakin nai degunean. Utsetik asten da askotan urte ta gizaldien buruan ezin ta aundiago egiten dau uria: iturrit̄so bat besterik ez da jatorrian, itsasoan sartzerakoan, ibai zabal arrigarritzko aundia dana.

Baña egiaztat iduki genezake, itsas-gizonak zirala, lendabizi Donostiari sorrera eman ziotenak. Lenengo Gipuzkoan izan ziran erri-bildu guztiak, itsasoaren ertzean zeuden, eta itsasoak ematen zuenetik bizi ziran: batzuek arrantzan; besteak, merkataritzan. Ala Erromatarren egunetan aitatzten diran *Olearso* edo *Oeaso*, *Morosgi*, *Menosca* eta *Tritio*

---

(1) Izen au ez izanagatik jatorriz euskerazkoa, euskaldunen artean t̄sit ezaguna da, eta Iztueta beziñ euskaralari bikaiñak itz au ipintzen dute Gipuzkoaren lege berezi eta eskubide bere-berekikoen gañean mintzatzen diranean.

*Tuborico*. Askok esan dute, Donostia orain dagoen tokian zegoela *Olearso* edo *Easo*: gure iritzian, ez da ori egia, *Olearso* Bidasoa-alderontzago zegoelako, Jaizkibel-en inguruan: *¿Morosgi* ote zegoen Urumearen ondoan, gitsi gora bera orain Donostia bezela? Guk ez degu esango ez baietz eta ez ezetz, gauzak bear beziñ argi ikusten ez ditugulako. Dana dala, emen lenbiziko etseak edo tsabolak egin, eta bizi izaten asi ziranak, itsas-gizonak ziran. Lurra zekena zalako, lurrari, asko nekatuagatik, ateratzen etzitzayouaren billa, itsas-alderonz zijoazen gizonak: «Zoaz, zoaz itsas-aldera, esaten zion *Burgos-ko* mendietan bere semeari, *Lope Garzia Salazar*, Muñatones-ko zaldun eta aide-nagusiaren aurreko batek: an, itsasoan, arkituko dezu, gosea kentzeko bear dezuna». Ala, joan ziran itsasora euskaldun asko, eta orregatik, Gipuzkoan, Goyerritik ere, atera ziran ainbat eta ainbat itsas-gizon, ospatsuen artean ospatsuak. Zegamatik, eta Bergaratik, Urretšutik eta Eibartik joan ziran asko ta asko itsasora, eta itsasotik ekarritako aberastasunakin, apaiudu ziran eleiza bat baño geyago; eta edertu, len zurez egintako etse kaškarrak. Itsasoari asko zor dio Gipuzkoak; *¿Zér* ez dio zor izango Donostiak, itsasoari begira jayo bada, eta itsasoari atera dionakin aunditu, zabaldu, eta apaindu bada batik-bat ?

Gizon asko-jakiñaren iritzian, Pasayan sartu ziran, anziña-anziñako denboretatik, Kantauriko itsasoan zebiltzan ontziak (1). Etzuten arkitzen ura baño toki obeagorik, ekaitz gogorrari, itsasoaren aserreari igesegiteko. Eta Pasayan ontzi asko sartzen bazan, andik ordu beteko bidean bizi ziranak, nai ta nai ez itsasoko gauzai arretaz begiratuko zioten, itsasotik beren bizimodua ateratzeko ustean. Beti izan da euskalduna, itsasorako griña aundia izan duena. Itsasoaren ertzean zegoenak, merkataritzarako indar aundia artzen zuen egun ayetan, itsasoaren bitartez urrutiko erri ta gizonakin sal-erosiak egokiago izan zitzaizkealake.

Eta Donostiako semeak merkataritzan tšit, aurreratuak zeudela jakiteko, ez degu here *Fuero* edo *Lege* bereziari begiratu baizik. Beste gauza guztietan baño merkataritzari dagozkionetan askoz bikaiñagoa da *Fuero* edo *Lege* au. Ikusi dezagun oarrez ta artezaz nolakoa zan: asko erakutsiko digu, Donostia gero nola aunditu ta zabaldu ta aberastu zan jakiteko.

## II

Amabigarren eunkian, Donostia Nafarroarekin batua zegoen, eta Nafarroako Erregeak ziran bere laguntzalleak. Oetatik bat zan, Santšo

---

(1) CAMILLE JULLIAN. *Questions ibériques*. (*Bulletin Hispanique*).

*Jakintiaren* izenarekin ezagutzen dana. Eta onek eman zion Donostiari, erria aunditzeko, eta bertako merkataritzari indar emateko bear zan *Fuero* edo lege berezia. Ikusi dezagun lenbizi, *Fuero* onek zer erabakitzen zuen, atera ditzagun ondoren berak aditzera ematen dizkigun erakuskerak.

Izkribalari geyenak diotenez, *Fuero* au, 1150-garren urtekoa da. Iritzi au ez du Gamon-ek ontzat artzen, eta bere ustean, berrogei bat urte geroago emana da (1). Dana dala, amabigarren eunkikoa da lege berezi au, eta berak zer erabakitzen duen ikusten degunean, jakingo degu eunki artan nola bizi ziran Donostian biltzen ziran jendeak. Au da, gaurko, egunean, kondairak billatzen duena: lenago, bazirudien kondairak erregeekin eta erregeen ondoan bizi ziranakin ezpada, etzuela zer ikusi. Erregeak noiz ta norekin ezkontzen ziran, zenbat seme ta alaba zituzten, eta zer guda edo jazarra ziran erri batzuen eta besteen artean: orra, kondaira bat eskuetan artzen zanean, irakurtzen zan guztia. Baña gaur ez da ala: gaur kondairaren egitekoa da, gure aurretikoak nola bizi ziran asmatzea: orretarako, ikasten du zer jaten zuten; nola jazten ziran; zer lanekin ateratzen zuten bizibidea; zer bidetan ibiltzen ziran; nori saltzen zioten lurak ematen zuena, eta noregandik erosten zuten berak etzuten guztia; beren artean zer lege zituzten okerrak zuzentzeko, eta auzi guztiak erabakitzeko; non ikasten zuten merkataritza; zer ontzitan zijoazen itsas-gizonak; norik erakutsi zioten Kristautasunaren argia, eta argi onetatik, iturri batetik ura bezela, sortzen diran ondasun naigarriak; zer landare ipintzen zituzten beren etse-inguruetan ziran lur-aldats edo zelai lanetan; nola egiten zituzten beren etseak, zurez edo arriz; eta zer zuaitz edo arbola-mueta ziran beren basoetan.

Gauza oek guztiak jakiteko, ez da tšarra len esan degun *Fueroa*. Ondo begiratzen badiogu berak agintzen duenari, ezagutuko degu zer artu dan beste *Fuero* edo lege batetik, eta zer erabaki dan, Donostia-ko oiturrak ala eskatzen dutelako. Ala ikusiko degu, egokiro, Donostia merkataritzako erria zala, eta *Fueroan* diran lege eta aginderik berezienak, *donostiarrenak*, ala esan al-baditeke, merkataritzari eta sal-erosiari dagozkiotenak dirala.

Lendabizi, Donostiarrai Erregek ematen dioten eskubide ta gallaldia da, ez dutela martitzakin gudara joan bearrik izango, lokabe edo libreak diralako; esango bagenu bezela, berak beren buruen nagusi zirala, eta iñoren morrontzara zer joan etzutela. Gero agintzen du, itsasoz edo

---

(1) D<sup>o</sup>JUAN IGNACIO GAMON. *Noticias históricas de Rentería*.

leorrez, Donostiara datozen merkatariak, Donostian saltzen dituzten gauzakgatik, ez dutela *pecharik* pagatuko, ez Donostian, ez eta ere Nafarroa guztian; baña Donostiatik aurrera jarraitzen badute, orduan Donostian emango dutela berai dagokioten *pecha*. Au zan, batik bat, andik Baionarontz joaten ziranentzat. Donostiako itsas-ontziak ez dute, Errege berak erabakitzen duenez, *lezda-rik* eman bear. *Lezda* au zan, Aragoian, eta Nafarroan, Gaztelatarren artean, itsasoko amarrena esaten zitzyonaren antzekoa. Ala diote gizonik adituenak, gauza oek obekiago ikasi dituztenak. *Lezda-rik* eman bear ez au, Donostian bertako ontzien-tzat bakarrik zan; bada angoak etziran ontziak, eman bear zuten *lezda* edo amarren ori: *Fueroak* berak esaten du zer dan ontzi bakoitzeko zor dana: *sueldo-ren* (1) izenarekin ezagutzen zan amardiru. *Lezda* edo amarren onezaz gañera, ontzitik ateratzen ziran gauzakgatik eman bear ziran beste amabi diru. Erbestekoak ekartzen zituzten zama edo kargakgatik eman bear zan ere, Donostian: arrai zama bakoitzagatik, sei diru; argizai zama bakoitzagatik, seidiru bere *lezdaz* gañera; kobre zama bakoitzagatik, sei diru; eztañu zama bakoitzagatik, sei diru eta bere *lezda* edo amarrena; berun zama bakoitzagatik, sei diru eta bere *lezda*: larru zama bakoitzagatik, bi duru; zama-erdiagatik, diru bat, eta zama erdia baño gutsiago balitz, ezer ez. Errirako ogia, ardoa eta aragia dakarzkienak ez du ezer eman bearrik izango. Erregek ez du ezer eskatuko Donostian jartzen diran labe, igara edo errota eta gorputza garbitzeko tokiakgatik. Erbestekorik Donostian bizi izatera eziñ etorriko da, Erregeren eta erriko etše-buru edo guraso guztien baimenik gabe. Donostian bizi dan zordunak, eta bere orde, ura ontzat eman duelako, aren zorrak bere bizkar artu dituenak, ez dute zor ori, bi urte igaro baño len, artzekodunari pagatu bearrik. Donostiarri zerbait eskatu bear dionak, Donostiara bertara etorri beariko du, auzia jartzera: bestela, Erregeri milla *sueldo* emango dizkio. Eta gertatuko balitz, Donostiaren mendeko itsas-basterretan ontziren bat galtzea, itsasoari kentzen zaizkion ontziaren zati edo puskak, eta andik ateratzen diran gauza guztiak, bereganatu litzake merkatariak, amar *sueldo* eta berari dagokion *lezda* emanaz. Izendatzen ditu gero Erregek Donostiaren mugak, eta esaten du, Donostiarrentzat izango dirala, Ondarribiatik asi ta Orio-ra, eta

---

(1) *Sueldo* au zer zan adierazteko, ipiñiko ditugu emen izkribatzalle azkar baten itzak: «Los sólidos ó sueldos que á cada paso se citan en el Fuero de San Sebastián serían los de plata, que en aquellos tiempos valían lo que ahora tres reales once maravedises y tercio, y componían la sexta parte de una onza; así como el sueldo de oro era igualmente la sexta parte de onza de oro, y equivale á ochenta reales vellón, aunque dudaron algunos si estos sueldos eran moneda imaginaria como ahora los ducados, ó si eran dinero físico y real». Dr. CAMINO. *Historia de San Sebastián*.

*Arrenga-tik* asi ta Arano ko Done Martin-a dauben erregekiko lur, zelai eta toki guztiak: gañera, Donostian bizi diranak ez dute *pecha*-rik eman bearrik Erregeri Nafarroa guztian diran ur, mendi, baso eta abereak bazkatzeko bear dituzten belarrakgatik.

Donostian bizi diranak erosi lezateke orobat, *pecha*-rik batere eman gabe, len aitatu diran mugen artean dagoen edozein soro edo lur; eta urte bete eta egun bat igaro ezkerro erosi dutenetik, iñork ezer esan gabe beren jabetasunaren kontra, iñork eziñ jarriko dio arrazkerro auzirik, eta norbait artan asiko balitz, emango ditu onek irurogei *sueldo* Erregerentzat, eta gañera soroa edo lurra geldituko da, len izan duen, au da, urte bete eta egun batean edo geyagoan iduki duen jabearentzat. Donostiarrek erbestekoakin ez du disidarik izango: berak esaten duena, ontzat emateko, aurkeztuko ditu bi gizon, Nafarra bat, eta Franzia-koa bestea, eta arkituko ez balitu, ziñez edo juramentuz adieraziko du egia dala berak diona. Erabakitzen da, ere, *Fuero* ontan, zer egin bear dan, donostiarren batek, besteren emaztearekin edo berea ez dan emakumearekin, Jaungoikoaren Legeko seigarren agindua azpiratzen duenean. Emakumeak berak nai duelako, iritši duenean gizonak berak nai zuena, ez du onek ezer eman bearrik, egin duen kaltea zuzentzeko, naiz ta emakumea ezkondua izan. Baldin ezkongaiia bada, eta gizonak gogorrean iritši badu bere naiera likitsa, ezkondu bearko du neskatša arrekin, bere kidakoa bada. Baldin bada, ezkongaiia izanagatik, gizon ura baño aberastasun edo nagusitasun gutšiagokoa, orduan billatu bearkodio, berari dagokion erako senarra, gertatu zayon zorigaitza gertatu baño len arkitu zezakean antzekoa, Alkateak eta erriko amabi gizon onek diotenez. Eta oyek erabakitzen dutena, egiten ez badu, emakume edo neskatš orren aideak izango dira gizon onen buruaren jabe, nai dutena edo ongiena derizkiotena egin dezayoten. Gauza oek guztiak ala gertatu ditezen, emakumeak iru egun barru egin bear du berari dagokion eskaera, len, esan degun zorigaitza gertatzen zayonetik. Ala egiten ez badu, galtzen ditu bere eskubide guztiak. Bana len aitatu dan erara, iru egun barru egiten badu eskaera, gizonak ura egia dala argiro azaltzen danean, ez bakarrik zuzenduko du, legeak agintzen duen araura, egin duen kaltea, baizik eman bearko dizkio irurogei *sueldo* Erregeri. Norbait etorriko balitz donostiarren kontra, lanza, ezpata, mallu edo aiztoarekin, milla *sueldo* emangoditu: nor edo nor ilko balu, beste bosteun *sueldo*: ukabillarekin joko balu, edo buruko illeetatik elduko balio, irurogei *sueldo*; eta lurrean etzinik idukiko balu, berreun *sueldo*. Ezin sartu diteke gogorrean besteren etšean, ez eta ere, iñor, bere etšetik, berak nai ez duela, atera. Ogei ta bost *sueldo* izango dira onelako gauza debekatuak egiten dituenari eskatuko zaiz-

kionak. Donostiako gizonik ezda beste auzitetsetara eramango, baizik bere errikora: eta emen erabakiko da bear dana, *Fuero* edo lege onek agintzen duen bezela. Iñok ez du idukiko bear ez bezelako neurri eta pisurik; eta badauka, Erregeri irurogei *sueldo* pagatuko dizkio. Iñor ez da sartuko besteren baratza edo mastian: atedun baratza edo mastia bada, emango dizkio jabeari ogei ta bost *sueldo*: ategabea bada, bost *sueldo*, eta gañera biurtu lapurtu duen guztia. Errota edo igaran gogorrean sartzen danak, emango ditu ogei *sueldo*, eta beste berrogei *sueldo* Erregeri. Besteren baratzan edo mastian zuaitz bat ebakitzen duenak, edo susterretik ateratzen duenak, ogei ta bost *sueldo* emango ditu, toki itñia bada, eta gañera ipiñiko du zuaitz bat lengoa atera duen toki ber-berean; eta ez au bakarrik, bada gauza oezaz guztiaz gañera, urtean urtean eman bearco dio jabeari zuaitz berriro landatuak irabazia ematen asi bitartean, lenagokoak, atera edo ebaki ez bazuten, emango zukeana. Matsaiena ebakitzen duenak emango ditu bost *sueldo*, eta len esan diran irabaziak. Norbaitek besteren baratzatik azarik arrapatzen badu, bost *sueldo* emango ditu. Lapurreta egiazkoa dan edo ez jakiteko, batak baietz eta besteak ezetz esaten dutenean, lapurreta ikusi duenik ez badago, joango dira biak jazarra edo gudara, eta elkarrekin burruka eginik, zeñ garailari gelditzen dan ikusikoda. Mastizai edo irurazaiak ikusiko balu norbait mastian edo soroan sartzen, eta juramentuz edo ziñez esango balu egia dala berak diona, besteak eman bearco luke orrelakoentzat aginduta dagoena: baldin makilduko baluteke irurazaia, egunaz, eta agertuko ez balitz iñor iruraziak esaten duena ikusi duenik, ontzat artuko da besteak egiten duen juramentua, irurazaiaren esanaren tronta badago: baldin irurazaia makildu ta jo badute gabaz, orduan ezda aski ori egia ezdala zinez edo juramentuz esatea; baizik, irurazaiak lapurtzat daukanak, jaso bearco du burni goritua eskuan, eta burni goritua erretzen ez badu, irurazaiak eman bearco dizkio berrogei *sueldo*. Norbait sartuko balitz gabaz besteren etsean, argiak eta sua itzali, eta morroi ta neskameak oeratu ezkerro, eta nagusiak edo beste norbaitek nola sartu dan nabaiturik, egingo balu alduena etsetik ateratzeko ain ustekabea sartu zaiona, eta onek, irten nai ezik, elkarrekin burruka asiko balira, eta nagusiak ilkobalu, ez luke kastigu edo zemairik irango, ez litzake gizon iltzalletzat idukiko. Baña ill danaren aideak esango baluteke, ez dutela, berak dioten bezela ill, baizik zioten etsaitasun edo gorrotoagatik, orduan etseko-jaun edo nagusiak, ziñez edo juramentuz agertu bearco du, berak egia diola; eta batzuek eta besteak ala nai izan ezkerro, joan litezke, elkarrekin gudatu edo burrukaturik, zein buru edo garailari gelditzen dan ikustera.

Etse batean guraso edo aita iltzen danean, bere azken-naia agertu

gabe, eta seme edo alaba tšikiak utzirik, alarguna berriro ezkonduko balitz, aita zanaren aideak, berak ala nai izan ezkeru, begiratu lekioteke aur oiei aitagandik datozkioten aberastasunai. Baldin ama alargunak, berriro ezkonduagatik, bere seme-alabak azi ta beren ondasunai begiratzen jarraitu nai balu, aide oiek eskatuko diode, semealabak, aurtasunetik ateratzen diranean, aitagandik datorkioten aberastasun guztiak, zintzo, zintzo biurtuko zaiozkaten segurantza. Aur diran artean ilko balira seme-alaba oiek, aitagandik dituzten ondasunak, joango dira aitaren aideetara, jatorritik atera ezditezen. Bere aitona edo asabakgandik etše edo soro bakar bat besterik ez duenean, ezin utziko dio iñori, eleizari, apaizai, bere animari edo aideren bati ez izatera.

Besteren etšean bizi bada norbait, maizter bezela, eta nagusiak etorri nai balu an bizi izatera, izendatu diran egunak baño len atera lezake: maizterrak ez du pagatu bearuko bera egon dan egunetako errenta baizik. Orobat egin diteke, maizterra Jerusalem-a joanagatik, edo beste erromerietara jendea joaten dan tokietara; senarrak, bera beste nonbaiten egonagatik, pagatu bearuko du emaztea bizi dan etseari dagokion errenta.

Norbaitek esango balitu ez diran gauzak, eta aladala agertuko balitz bear diran sinisgarrien bitartez, zuzendu bearuko ditu egin dituen kalte guztiak, naiz ta gezur oiegatik jazar edo burrukara joan, eta bere men dean ta azpiratua gelditu. Gañera orrelako gezur kaltarkitsuak esaten duena, jarriko da Ekadoi edo Juezaren mendean, berak erabakidezan derizkiona.

Berretan edo irutan edo geyagotan ezkontzen dan alargunak, lenagoko senarretatik seme edo alabak dituela, zer irabazi duen senar bakoitzarekin buzi izan dan artean, aitortu bearuko du: irabazi onen erdia emango die, senar arengandik izan zituen seme-alabai, baño beste edozein bide-tatik, edo ezkondu baño lenagotik berak dituen aberastasunetatik, ez du ezer eman bearrik izango. Seme-alaben naiera gelditzen da, aitagandik datozkioten ondasun oetatik zerbait amari ematea. Gauz oek bear bezela egin ditezen, Erregek lagunduko du bere indar guztiarekin. Aski izango da azken-nai agiriko edo iriki bat, ontzat ematen badute egin duenak artarako izendatu dituenak; eta eriotza bereala datorrelako, eziñ arkitu balitezke oek, naikoa izangoda Premieleizako apaiz-nagusiaren sinisgaia, eta au ere eziñ arkitu danean, naikoa izango da bi emakumeren bitartekotasuna; eta norbait basamortuan, edo iñor ezdagoen tokian ilko balitz, orduan aski izango da gizon edo emakume batekin bakarrik, gauzak ontzat eman, eta azken-naian agintzen dan guztia zuzenki egin dedin. Emaztea bizi dan artean, senarrak ezin eman lezake emaztearen gauzarik, emaztearen beraren baimenik gabe. Andre alargunak, alargun

dagon artean bere seme-alaben ondasunetik ateratzen duena, beretzat izango du: ugaz-semerik edo ugaz-alabarik balu, ez dira izango beretzat, oen beren amagandik dituzten ondasunetik ateratzen diran irabaziak; baña bai aitagandik dituztenetik ateratzen dana. Ala, alargun orrek eziñ salduko du ugaz-seme edo ugaz-alabak, amagandik duten ondasunak; baña bai bere seme edo alabenak, premian arkituko balitz.

Donostiako biztanle guziak, bakoitzak bere lanean, aterakodute dagoioten irabazia, lapurretarik gabe. Donostiako etseren batean dagoen gizonik, ezin atera liteke etse artatik presondegira eramateko, zorrak-gatik; eta eziñ kendu lezayoke ere bere ondasunik gauz ori bera dala bide. Etse jabeak ez du utziko, gogorrean, bere etsean dagoena ateratzen, naiz ta bera ateratzera datozenak Erregeren sillua erakutsi. Eta zorren fiatzalle jartzen danak, ipintzen badu ezagungarritzat abere bizi bat, erabakitzen da, zorra eun *sueldotik* gorakoa danean, ipiñi dezala zaldi, beor, mando edo mando-emea, eta zorra bada eun *sueldokoa*, abereak izan bear ko duela ogei *sueldo-koa*, eta ala beti bostetik bat balioko du ezagungarritzat ipintzeri dan abereak. Gauz oetako guztietarako, erbestean diranai ematen zayote epe luzeagoa: Erregeren mendeko lurretan badaude, ématen zayozkate bost egun; eta Erregeren mendekoak ez diranetan daudenai, amar egun; eta *Compostela-n* diranai, illabete eta egun bat; eta Jerusalem-en diranai, urte bete eta egun bat, eta epe oen barruan agertuko ez balitz fiatzallea, orduan elduko zayo berak duen ondasunari, zorrak kentzeko. Erabakitzen da gero zer egin bear dan batek zorra ukatzen duenean: egia azaltzeko, ukatzen duenari aginduko zayo burni goritua jaso dezala eskuarekin. Ukatzen duenari, zemai edo kastigutzat kentzen zayon diruarekin, iru zati egingo dira: bata Erregerentzat, bestea errian dan *Almirantearentzat* eta irugarrena alkatearenzat.

Donostiara beste portuetatik etortzen diran merkataritzako gauzakgatik, an gordetzagatik emango da diru geyago edo gutšago, gordetzen dan gauza garestiagoo edo merkeagoo bada. Ekartzen ziran orduan Donostiara larruak, eta eztañua, eta beruna, eta piperrak, eta argizaia, eta artilla, eta arrayak, eta liñoa, eta katuak, eta jazkaiak, eta burnia, eta pikea. Azkenik, erabakitzen da, urteoro aukeratuko dituztela donostiarrak beren Probestu edo Erabakitzallea eta Alkatea, eta Nafarroako Erregearen mendean dauden lurretan diran bitartean, non nai egonagatik, *Fuero* edo lege au izango dala berak dituzten ezdabaidak erabaki ta zuzentzeko artuko dana.



## III

*Fueroak* zer dion aditzera eman degu. Goazen orain berak zer erakusten digun ikustera.

Eta lendabizi galdetuko degu: ¿nondik eta norañokoa zan urte ayetan Donostia? Garbiro die lege onek berak: Ondarribia-tik Orioraño aide batetik: au da, itsas-ertzean, Ondarribia-tik asi ta Orioraño ziran lur guztiak Donostiarenak ziran. Eta ¿lur barrena? ¿non zeuden Donostiaren mugak? Santso *Jakintiak* latíñez dionez: «*Arrenga usque ad Sanctum Martinum de Arano*». Gauz oen gañean izkribatu dutenak, uste izan dute geyenak, *Arrenga* ori, Pasaya-ko Arando dala. Ala dio *Camino-k*, eta *Camino-rekin* beste askok. Bat bakarra da, guk dakigunez, beste gauza bat esaten duena, eta gure iritzian, onek dio egia, eta ez bestek. Au da Gamon (1). Onek esaten du *Arrenga* ez dala esan bear, baizik *a Renga*, eta ala izkribatzen dutela *Moret-ek*, *Hcnao-k* eta *Risco-k*. Gamon-en iritzian, *Renga* onek ez du zer ikusi Pasayako Arandorekin, Arando aundia eta Arando tšikia, beti orain bezela deitu izan diralako, eta gañera *Renga-ren* izenarekin ezagutzen zalako Lesaka-tik urruti ez dala dagoen mendi bat. Euskeraz Errenga esaten zayo, eta joaten da bertara, Oyarzun-go Alzibar-tik asita Aritšulegi-ko zelaietatik igororik. Andik ordu-erdiko bidean, Usategieta-ko mendia dago, eta mendi orretatik bera goazela egoa-aldetik *Errenga-ko* mendiaren asiera arkitzen degu, eta bere tontorrik goitsuena, Erreneria edo Oreretatik ikusten da, batik bat, Ugarriza-ko ibiltokitik. Erri ontatik, Errenga-ra joan nai bada, Aiñarbe-ko bide eta Urraide edo Urdaide-ko zubitik, lenengo igarotzen da Saria-ko mendia, eta gero beste bat aundiagoa, Biandiz edo Bigandiz deritzayona, eta oni ikutzen diola dago *Errenga*, bere egoa-aldetik Lesaka duela. Bide onetatik joan ziran 1494 eta 1495garren urtean, Erregek artarako izendatutako *Juan Garcia*, *Zobaco* eta *Tomás de Valde-Olivas*, biak Donostiako alkateak, Erreneriaren eta Oyarzunen arteko mugak ipiñizituztenean. Ayek eman zuten erabakian, iru aldiz gutšienez *Errenga-ren* izena irakurtzen da. Eta ez da zer arritu, Donostiaren mugak Lesaga-ko ingururaño iristen ziralako. Arano oraindik urrutiago egonagatik, Donostiaren muga zan, eta gaur bertan, aspaldi ayetako oroitza bat bezela, Landarbaso Donostiarena da. Gañera gogoan iduki bear da, Santso Jakintiaren egunetan, etzirala artean erri bezela

---

(1) *Noticias históricas de Rentería*.

ezagutzen ez Ondarribia, ez Oyarzun, ez Errenteria. Bakarrik Ernani zan anziñagokoa. Eta ala, sinistu genezake, Donostiaren mugak, itsas-ertzean, Ondarribiaren ondotik asi-ta joango zirala Errengaraño, Erren-gatik Arano-ra, eta Arano-tik, Astigarragaronz arturik, Ernani alde batera usten zutela, itsas-ingururaño etorriko zirala, andik Usurbil-dik aurrera, Orioraño jarraitzeko. Donostia zer zan egun aietan jakiteko, ez da alferrikakoa zer muga zituen ikustea, nondik noraño zabaltzen zan begiratzea.

ETSEGARAY-KO KARMELO-K.

(*Jarraituko da*).

---

## ADVERTENCIA

---

En la «Segunda defensa del nombre antiguo etc.», pag. 693, línea 7 y siguientes del nº 6 de ésta Revista, se lee: «Dispéñseme el Sr. Arriandiaga; ésta elisión (la de consonnantes iniciales) es muy frecuente en ciertas variedades de algunos dialectos. Estudie p. ej.: el sub-dialecto ulzamés y á cada pasó oirá *zautu* por *ezagutu*, etc.».

En ese pasaje faltan dos líneas del original que son necesarias para la demostración: léase: «á cada paso oirá decir *uatze* por *guatze* «cama», *ano* por *lano* «bruma, niebla», *ibel* por *gibel* «detrás», como se oye *zautu* por *ezagutu*, etc.»

# Donostia- ko Fueroa

(*Jarraipena*)

---

## IV

¿Nondik artu ziran, senar-emazteak elkarren artean bizi izateko, gurasoak iltzen diranean beren ondasunak nora eraman eta zeñi eman bear zaizkion erabakitzeke, eta lapurretan egiten duenari bear duen zuzenbidea emateko, *Fuero* orretan dauden legeak? Geyenak, edo obeto esateko guztiak, Nafarroa-ko legeetatik.

Santso Ramirez-ek, 1090-garren urtean Lizarra edo *Estella*-ri eman zion *Fueroa* irakurtzen badegu, an ikusiko ditugu gero Donostia-koan arkitzen diran gauza asko: ala, maizterra bizi dan etsetik ateratzeko eskubidea, nagusiak berak etse artara bizi izatera joan nai badu: ala, gabaz eta ustekabea etse baten sartzen dan arrotza iltzeko eskubidea, etsetik atera nai dutenean, berak gogor egiten badu: ala, tsikitan iltzen diran aurren ondasunak atzera beren odol edo jatorrira itzultzeko agintea: ala, gabaz edo egunaz, irurazaya makiltzen duenari zer egin bear zayon erakusten duena: ala, beste geyago. *Lizarra*-ko *Fuero* au *Jaca*-koaren antzekoa zan, eta beti esan izan da, *Jaca*-ko *Fueroa* eman ziola Santso *Jakintsuak* Donostia-ri.

Lege oetatik azaltzenda nola bizi zan jendea aspaldiko egun ayetan. Badaude orain izutzen gaituzten gauzak: ala, burni goritua eskuan arrezaritzea, batek errurik etzuela jakiteko. Gogorra da benetan aginte ori, baña ez da Donostia-koa bakarrik: ez da Nafarroa-koa bakarrik: orduan, alde guzietakoa zan.

Etsea, odol bateko jendeak biltzen diran bizitokia goitzeko, neurri

egokiak artzen ziran (1). Iñoren etsean ezin sartu zitekean: bat, bere etsean, jaun ta jabe zan. Norbait, ustekabean eta gabaz, sartzen bazitzaion, eta atera nai ez bazuan, len esan degun bezela, ura illagatik etseko-jaunak etzuen bere gañ gizon arren eriotza: etzan gizon-iltzalletzat idukiko. Etseari zitzaion begiramen onek, zer indar eman zion erriari, ez da esan bearrik. Bat bere etsean buru danean, aurreratzeko indar aundia artzen du.

Labe ta igara edo errotak, tsit gauza bearrekoak izanik, ugaritzea ondo zetorren, Donostian bizi ziranak ongi bizi zitezen. Askoz geroago ere; Euskal-erriko Batzarreak arretaz begiraten zioten errota eta labeai, batik bat errotai. Lurra soilla zan emen, gaur baño askoz soillagoa: basoak estaltzen zuten Gipuzkoaren zatirik aundiena. Garia erbestetik ekarri bear zan; artorik etzan artean ezagutzen. Artofsikia-ren orearekin egintako ogia jaten zan. Gosearen mendean ez arkitzeko, neurri asko ta zorrotzak artu bear ziran. Al-zala, etniran errotak edozeiñen eskuetan uzten, baizik erriarenetan, edo erriaren izenean, erriaren onerako aukeratzen zan batzarrearenetan. Ala ikusten degu Asteasun: ala ikusten degu *Ordizia* edo *Villafranca*-n; ala ikusten degu Tolosa-n; ala ikusten degu beste erri askotan. Donostian, gosea menderatzea, edo obeto esateko, goseari sartzen ez uztea, errazago zan: itsas ertzean zegoelako, itsasoz ekarri zitekean, goseari indarra kendu eta andik laster biraltzeko bear zana.

Baña itsasoari eta merkataritzari dagozkioten gauzak geroagoko utzirik, oyek diralako gogoangarrienak, eta geyena erakusten digutenak, Donostia zer zan antziñako egun aietan jakin nai badegu, begiratu zayogun orain *Fuero* orretan agertzen zaizkigun beste gauza batzuek. Bata da, Nafarrai eta Franziaikoai ematen zayoten sarrera. Nafarroa-koa zalako *Fuero* au eman zuen Errege, ez da Nafarrenarekin zer arritu. Donostia zan orduan Nafarroak itsas-aldera zeukan irteera, eta Donostia izan zan geroago ere, urte ta gizaldi askotan. Gipuzkoa, Gaztelako Erregerekin bildu ezker ere, Donostiara zetozen Nafarroatik itsasoz biraltzen zituzten alorta eta gañerakoak: eta Nafarroarako itsasoz etortzen ziranak. Gaztelako Errege Pedro I-koak, erabaki zuen 1351-garren

---

(1) Beti izan da etsea euskaldunentzat begirune aundiko gauza. Lapurdiko biursari gogoangarri batek ala dio neurtitz gozatsu eta ederretan:

«Nahiz ez den gaztelua  
Maite dut nik sorlekhuia  
Aiten-aitek hautatua».

urtean (1), Nafarroatik Donostiara zetozen gauzak etzezatela Tolosan amarrenik pagatu; eta eun urte geroago, 1450-an, *Carlos, Viana*-ko, Lenen edo *Prinzipeak* erabaki zuen Donostiarrak etzezatela *pecharik* pagatu Nafarroan zeramazkiten edo andik zekarzkiten jateko edo beste gauzkatik. Orain bertan, Donostian Nafar asko bizi da; eta Donostiak, Gipuzkoako beste erriakin aserrereren batzuek izan dituenen, nai izan badu Gipuzkoa-gandik alde-egin, Nafarroarekin batutzeko izan da. Ez da sustrai gabeko landarerik, ez eta ere iturburu gabeko ibairik. ¿Ez ote dago Santšo *Jakintsuaren* egunetan, gaurdaño Donostia-rako Nafararak iduki duten griña eta naiera ? ¡Nork daki!

Franzia-koak nola etorri ziran Donostia-ra ez dakigu: Santšo *Jakintsuaren* egunetan, Donostian asko zeudena bai. Egia da Iruñan ori bera gertatzen zala. *Cahors*-tik etorri ziran Iruñara, eta aieri eman zitzaizoten *Fueroa, Jaca*-koa zan, Donostia-koaren oso antzekoa. Kaskoiak geitu ziran Donostian, Gaztelako Alfonso VIII-garrenaren egunetan, eta beren izkuntza entzuten zan non nai, eta eramaten zuten erriko batzarrera. Ardo ta sagardoen gañean, 1309-garren urtean argitaratu zan *Ordenanza* edo lege bat, kaskoiz egiña zegoen. Kaskoiak dira orain bertan, Donostia-ko kale batzuen izenak, eta bertako inguruko mendi ta baserrienak: ala *Puyu* eta *Puyuelo*; ala *En-beltran*: ala *Narrica*: ala *Mirall*: ala *Urgull*: ala *Morlans*: ala *Pordeprat*: ala *Pumarguer*. *En*, kaskoiz, jauna da: *na*, andrea. Eta Gamon-ek dionez, iseka ta farre egiteko, inguruko errietakoak, *kaskoiak* eta *landerrak* esan oi zioten *donostiarrai*. *Gamon-ek* berak uste du, kaskoien oitura dala Donostian, Doniban edo San Juan bezperan uriko etšearen aurrean, lendabizi bedeinkaturik, lurra jo erazi eta zatitzen duten zuaitza ipintzeko oitura. ¿Kaskoietatik ote dator ere, Kaien, Kiteri Santuaren eguna ospatzea? Aire deritzayon errikoa zan Kiteri Santua, eta Franzia-ko egoa-aldean dauden lur guzietan izan zan tšit ezaguna eta maitatua. Beste gauza asko bezela ¿andik etorri ote zitzaizgun oitura au? Ez da zer arritu ala bada. *Fueroan* bertan ikusten degu, Donostiarrak etzirala erromerian Erromara eta Jerusalem eta Galizia-ko Santiagora bakarrik joaten: joaten ziran, ere, Arles-ko Done Jil edo San Jil-a. Eta Arles-a zijoazenak ¿ez aldezatekean *Aire*-tik ekarri beste zeruko doatsu baten izena eta izen ori goitu ta ospatzeko gogoia? *Aire*, Arles baño askoz lenago arkitzen da, donostiarrentzat, Donostia-tik ateratzen diranentzat.

Donostia, itsas-erria izanagatik, beti izan da, lurrai begiratzearen

---

(1) Pedro Erregeak berriztatu eta zabaldu zuen, Gaztelako Santšo IV-garrenak, 1286-garren urtean emantako aginte bat, Nafarroatik Flandes-a, Donostiatik biraltzen ziran gauzak, ondo joan zitezten.

zalea. Donostia-ko arrantzaleak, erdi arrantzale, erdi nekazariak ziran lenago. Ala dio Larramendik (1). *Santio Jakintsuaren* egunetan, masti asko ikusten zan Donostia-ko inguruetan. Masti oek ematen zuten matsarekin, tsakoliña egiten zan. Eta tsakoliña aitu edo bukatu arte, etzan erbesteko ardorik ekartzen uzten. Ala erabakitzen zan 1489-an. Eta alaz guziaz ere, erbestetik etortzen ziran orduan orain ikusten ez diran ardoak. ¿Nork ezagutzen du oraiñ Euskal-errian Euskal-erritik iñoiz atera ez bada, *Ribadavia*-ko ardo zuria?. 15-garren eta 16-garren eunkietan, sarritan ekartzen zan gure portuetara. Edan izan ez balitz, etzuten ekarriko.

Baña oraindik mastiak baño ugariago, sagastiak ziran. Gorago aitatu degu, 1309-an ardo ta sagardoan gañean egintako *Ordenanza*. Eta ez bakarrik Donostia-n edaten zuten sagardoa, baizik non nai : Donostiarrak iristen ziran edozeiñ tokitan, *Terranova*-ra eta *Groenlandia*-ra baletara eta bakallautara joaten ziran ontziak, Donostia-ko sagardoa eramaten zuten, itsas-gizon eta arrantzaleak edan zezaten. 1625-garren urtean bakarrik, eraman zituzten baletara joan ziran ontziak 3.680 upela sagardo.

Mastiak eta sagastiak etzeuden lurretan, ¿ zer ote zegoen ? Batetik zuaitz mueta asko : zur asko bear zan urte aietan, ontziak egiteko, etseak egiteko, beste gauza askotarako. Donostia-n beti izan zan, anziña-anziñatik, ontzitegia. Ez bakarrik Donostian : Ergobian ere, ontzi asko egin ziran, itsaroaren gañean Gipuzkoaren izena zabaldu zutenak.

Baratzetan landatzen ziran azak, bada landatu ez balira, etzituen iñork arrapatuko. Eta landatzen ziranean, jateko izango zituzten. Baratzetatik lapurretan egitea, sarritan ikusten zan gauza izan bear zuen. Lapurretaren bildurrik ez izatera, etzan irurazaya ipiñi bearrik. Eta dirudienez, etzuten aski lapurretan egitearekin : irurazayarekin arkitzen baziran, lapurretan egiteagatik bazekiten irurazaya ongi makildu ta makaldurik lagatzen. Beti izan da gizona debekatuta dagoena egitearen zalea.

## V

Ordea, gauz oek guztiak, gitši gora bera, beste errietako *Fuero* edo legeetan arkitzen dira. *Jaca*-koan ez badago. Lizarra edo *Estella*-koan egongo da; bestela, *Logroño*-koan; bestela, Iruña-koan. Donostia-ko *Fueroan*, Donostiarranak diran legeak merkataritzari dagozkionak dira. Itsas-erriak beti izan dira merkataritzarako artarakoak. *Rodas*-en izena,

---

(1) LARRAMENDI — Corografía de Guipúzcoa.

merkataritzan egin zuenetik dator. *Rodas*-ko legeak, antziñako lege guztien artean, oso ospatsuak dira, itsazoz merkataritzan dabilzaneztzat. Eta *Rodas*-ko legeak antziñako egunetan ziran bezela, izan ziran Donostia-ko *Fueroko* legeak *Santšo Jakintsuaren* egunetan, eta ondorengoetan. Artean, Bilborik, etzan: *Barzelona*-ko itsas-legeak geroago etorri ziran. Nafarroak, Donostia beste porturik etzuen. Gaztelako Erregek zituenetan, etzuen merkataritzak Donostian zeukan indarrrik, eta *Cerdá* eta *Rico-k* esaten duenez (1), Donostia-ko *Fueroan* itsas merkataritzarako dauden legeak, anziñakoenetakoak dira. Orregatik artu ziran beste itsas-erri askotarako. Orregatik, lege oien laguntzarekin, Donostia-ko merkataritzak geroago ta zabaltasun aundiagoa artu zuen. Orretarako zan Erregek agintzen zuena: Donostiako ontziak etzuten pecharik emango, Donostian ontziak ugaritu zitezzen. Eta ugaritu ziran edo ez, laster ikusiko degu. Batzuek zijoazen baletara; besteak, bakallautara; besteak merkataritzara, alde batean sortzen diran gauzak urrutira eramatera. Guztiak itsasoaren gañean zebiltzan; guztiak, itsasotik ateratzen zuten gosea kendu ta aberasteko bidea.

Ori ikusirik: ¿nola beste erri geyagotan etzan sortuko Donostiari jarraitzeko gogo? Gipuzkoa, Gaztelako Erregearekin elkartu zanean Alfonso VIII-garrena Errege zala, 1.200-garren urtean, Errege au asi zan, itsas-ertzean biltzen ziran errientzat Donostiako *Fueroa* ematen; eta ala, *Fuero* au dute, Ondarribia-k, eta Motriku-k, eta Ketariak, eta Oyarzun-ek, eta Zarauz-ek, eta Erretereria-k, eta Zumaya-k, eta Usurbill-ek, eta Orio-k, eta oraindik arrigarriagoa dana Euskal-erritik alden durik, *San Vicente de la Barquera* deritzayon erriak. Itsasotik bizi bear zutenentzat, *Fuero* au eziñ ta obea zan, guztiak ezkatzen zutenean. Egia zion gizon asko jakin batek, *Santšo Jakintsuari*, Gipuzkoa-ko itsas-erriak asko zor ziotela, esan zuenean (2). 13-garren eunkia bukatu baño len, Donostia-ko ontziak Flandesa zijoazen, burnia eramana, oyalak ekartzera. 1.350-an Brujas en beren etsea bazuten Euskaldunak merkataritzarako: lenagotik zuten beste bat *La Rochellen*. Euskaldun oen artean, Donostiarrak lenengoetakoak zirana, esan bearrik ez da. 1.150-an *Almirante* bat zan errian, ¿nola itsasoko gauzak arretaz begiratuak etziran izango?. Ikasola kondairatar Madrill-goak uste du (3), Donostian baño len iñon etzala Españan Almirante-rik izan.

---

(1) D<sup>o</sup> FRANCISCO CERDÁ Y RICO — *Adiciones á las Memorias del Marqués de Mondéjar*.

(2) D<sup>o</sup> Martín Fernández de Navarrete. *Colección de los viajes y descubrimientos que hicieron por mar los Españoles desde fines del siglo XV*.

(3) *Diccionario geográfico-histórico de la Real Academia de la Historia*.

Donostiarrak, Ingelesakin ezdabaida asko izan zuten, itsasoan batzuek eta besteak agindu nai zutelako. Bayona, gizaldi aietan, ingelesena zan, eta onetatik zetozen etsaitasun asko. Berak bukatzeko, elkarren artean bein baño geyagotan antolatu ziran lege edo bakoitzaren eskubideak. 1353-an Londres-en gai onetarako izan zan billerara, Donostiaren izenean joan ziran *Juan Gomez* eta *Martin Guillermo Perquie*. Berritu ziran, orduan egin ziran pakeak, larogei bat urte geroago, 1432.garren urtean. Alde batetik zegoan Donostia, eta bestetik, Baiona, Donibane Loitzungoa, Bearriz eta Kabreton, beste itsaserri geyagorekin. Donostia, batu eta elkartu zan ere, 1296-garren urtean, *Santander*, *Laredo*, *Castro-Urdiales*, *Vitoria*, *Bermeo*, *Ketaria* eta Ondarribiarekin, guztien artean merkataritziari indar geyago emateko. Eta itsasotik zer aberastazun ateratzen ziran jakiteko, arrantzak ematen zuenak argi ematen digu. Gaztelako Enrike II-garrenaren egunetan, Donostia erre zalako, eta Ingelesakin itsasoz izan zan gerran egin zituzten azaña aundiak donostiarrak sariztatzeko, Erregek, erria berriro jaso zedin, eta etše berriak egiteko, erabaki zuen arraiak pagatzen zuen *pecha* erriarentzat izan zedilla. Itsasora zijoazek, eta itsasotik bizi ziranak anaitasun eta elkargo bat zeukaten Donostian, *Santa Catalina*-ren izenarekin ezagutzen zana. Elkargo one-tako buruak, Alkateagana joan gabe, erabakitzen zituen merkataritziari dagozkion gauza asko.

Erbestetik Donostira zetozenen artean, merkataritzak deitzen zielako, Bretaña-tik etortzen ziranak izendatu bear dira batik-bat. Donostia-ko erriak berak erabaki zuen 1388-an, Bretaña-koak etorri zitezela nai zuten bezela, bada emen ongi artuak izango zirala, adiskide onak ziren bidez, eta merkataritzarako gauza ugari ekartzen zutelako. Bretañatik zetozen gauzarik bearrenetan, garia aitatu bear da: irureun urte geroago ire oraindik ekartzen zan.

Donostiari itsasoak eman zizkion aberastasunetatik bikañenetako bat, balearen arrantzatik zetorrena zan. Aspalditik zan Ulia-mendian, balea noiz ageri zan ikusteko egintako dorre zarra. Gero, baleak igesegin zuen itsaso oetatik, baño bere ondoren joan ziran Euskaldunak tšit urrutira, otzagatik eta ekaitz gogarrak gatik izutu gabe. Baleak ematen zuen lumera eta lumera bear zan, ez bakarrik argi egiteko gabaz, baizik oyalak egiten ziran lantegietarako. Lumera egiten zan ontzietan bertan, eta Donostia-ko kaleetan, 1415-garren urtean, kaleetan egitea debekatu zan arte. Balearen arrantzak ainbat ondasun ematen zuen, ezik, jarri zan geroago lagundi bat arrantza au geitzeko, eta 1625-garren urtean, Pasaiatik baletarako atera ziran lagundi orren ontziak, 41 ziran, 298 tšalupa eta 1.475 gizonekin.

Donostiarren antzera, joaten zirau arrantza orretara Ondarribia-koak



eta Zumaya-koak eta Ketaria-koak eta Motriku-koak, eta Zarauz-koak. Ondarribia-k-eta Ketaria-k eta Motriku-k, erriko silluan balea erakusten digute, balearen arrantzarako zer nolakoak ziran bertako semeak gogora dezagun. Zarauz-koak, arrapatzen zuten bale bakoitzagatik, Erregeri eman bear zioten zati edo zirindara bat, burutik asita atzeko aldera-ñokoa. Ala agindu zuen, Fernando Santuak, Zarauz-i eman zion *Fueroan*: «et si mactaveritis aliquam Ballenam, detis mihi unam tiram a capite usque ad, caudam, sicut forum est».

Balearen arrantza gutšituagatik, oraindik bakallautara zijoazenak, ondasun asko Donostira ekarri zuten. Euskaldunak izan ziran *Terranovan* bakallua arrapatzen dan tokiak, lenbizi arkitu zituztenak. Ordutik datoz, *Terranovan* dauden euskarazko izen asko: *Burutšumea*, *Buruauandia*, *San Lorenzo-tšumea*, *San Lorenzo-aundia*, *Mikeleportu*, *Portutušoa*, eta *Etšaide-portu*. Bakalluaren izena bera euskerazkoa dala, diote gizon jakintsuak. Donostia-tik eta Pasaya-tik ontzi asko ateratzen zan urteero, bakallautara joateko. Arrantza eta merkataritza au oso galdu zan 18-garren eunkiaren asieran, Utrech-en erabaki zanean nola moldatu bear ziran gauzak, len elkarrekin guda gogorrean ibilli ziran erri ta jendeak pakean bizi zitezen.

Baña Donostiak bere *Fuero* zarretik merkataritzarako artu zuen naiera ezin utzi zezakean. Bakallauaren eta balearen utsunea betetzeko billatu zuen *kakaoa*, eta Caracas-a ontziak biraldu, eta andik kakaoa ekartzeko, jarri zan Donostian indar aundiko lagundi bat 1728-garren urtean. Donostia-ra eta Gipuzkoa guztira zenbat ondasun ekarri zuen lagundi onek jakiteko, *Venezuela-ra* begiratu bear da, eta an euskaldunak egin zutena ikusi. Ango izkribalari batek dio, euskaldunai zor zaiotela *Puerto-Cabellok* artu zuen indarra (1). Euskaldunak erakutsi zuten lur ugaritsu ayetan, nekazaritza zer zan, eta lurraren aberastasuna nola geitu zitekean.

Badirudi *Fuero* zarra alde batera utzi degula, bañan ez da ala. *Fueroak* erakutsi zion Donostiari merkataritzan bere bizibidea billatzen, eta ondo ikasi zuen Donostia-k *Fueroak* erakutsi ziona. Antziñatik datozen gauzak beti gogorragoak, portizagoak dira. Zenbat eta barrenago lurrean sustriak sartu, ainbat eta gorago igotzen da zuaitza, eta ederkiago bere osto la adarrak zabaltzen dira. Bere itzalpea ainbat eta naigarriagoa da. Donostia, merkataritzaren itzalpean, gizaldi askotan, tšit luzaroan, bizi izan da. *Consulado*, edo merkataritzarako Batzarra sortu baño lenagotik, alegiña egin zuen portua obetzeko, bertara zetozen ontziak egokiago egon

---

(1) D'ARISTIDES ROJAS. — *El elemento vasco en la historia de Venezuela*.

zitezen. Lenago Gaztela-tik Flandesa biraltzeko zetozen artillak (1), beste bide bat arkitu zutenean, etzuen etsi: biziroago merkataritzari jarraitzeko, 1682-an jarri zan *Consulado* edo Batzar ori: Eta zala itsas-ontziak egiñaz, zala berentzat belak egiñaz, jende askorentzat ogia irabazteko era edo modua sortu zuten.

Merkataritzara zion griñari eskerrak, Donostiak etzuen ikusi bere semeen artean, oñaztarren eta ganboatarren artean izan zan guda anai-arteko kaltarkitsua bezelakorik. Merkataritzari, pakea zor izan zion: merkataritzari, bere aberastasuna. Gaur bertan, merkataritzari begiratzan badio, etzayo damutuko. Donostia-ko portua bear bezelakoa ez izanagatik, ordauka bere aldamenen Pasayako portua, eziñ ta obea.

Donostiako etšeak badijoaz Ategorrietan aurrera Pazayaronz. ¿Zergatik etšeakin batera, joango ez da Donostiar anziñakoen merkataritzarako griña eta zaletasuna?. Pasayak izan bear du Donostiaren portua. Eta *Santšo Jakintsuagandik Fueroa* artu zutenean ondorengoak, merkataritza ez dute alde batera utzi bear, aitona ayen billoba egiazko ta maitatiak izan nai badute. Gurasoaren ondoren dijoana, gurasoak erakutšitakoa egiten duena, luzaro biziko da. Aurrera zuzen joateko, eta urrutira iris-teko, ez da nondik gatozen begiratzea bezelakorik: ala ez degu biderik galduko. *Santšo Jakintsuak* Donostiari *Fuero* zarra eman zionean, norontz joan-bear zuen erakutsi zion.

1906.

ETŠEGARAY-KO KARMELO-K.

---

(1) Gaztelatik Flandesa biraltzen zan artillak zer indar ematen zion merkataritzari jakiteko, irakurri bedi. «Étude historique sur les relations commerciales entre la Flandre et l'Espagne au Moyen Age, par Jules Finot».

